


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA**OKENDO 2**

Egilea eta data: Eleuterio de Escoriaza; 1865

Deskribapena

Kantoiko eraikina, behe oina, jatorrizko lau goi oin eta bi jasodura dituena, lehenengoa fatxada planoan eta bigarrena mantsardatua, biak 1918koak (orduan "Victoria Palace" hotela zen). Hareharrizko harlanduzko fatxada lehen oineraino, gainerakoa adreilu margotuzkoa. 1932ko hormigoizko begiratokia kantoiko alakan. Behe eta lehen oinetako baoak puntu erdiko arkuek errematatutako ordena erraldoi batean lotzen dira.

Babes erregimena

1. Erregimen orokorra:
 - Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
 - Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2. Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: ez.
 - B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
 - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.